



Eman hegoak euskarari



Hegoak eta txoriak

Abesti ezagunaren atzean amodio urratu bat dago. Joxean Artzeren biografian (1939-2018) ezaguna zen maitasun harreman hori. Baina eten egin zen. Urrundu ziren txoria eta maitasuna

JON KORTAZAR



Nork ez du ezagun 'Hegoak ebaki banizkion' JoxAnton Artzeren poema, Mikel Laboak musikatua eta hedatua, hain hedatua zeren askok eta askok pentsatzen dute Mikel Laboak idatzia dela testua. Izenburu ere aldatu diote eta orain 'Txoria txori' deitzen omen da. Gutxi dakite baina Isturizetik Tolosan barru liburuan agertu zuela Artzek poema, hain zuzen ere, 'santimamiñe' deituriko orrian, zeren niretako euskal postmodernitatean lehen zantzuen artean dagoen liburu horrek



Joxean Artze

orrietan toki izenak jarri zituen zenbakien ordean, Euskal Herriko herri izenak zeramatzen aurkibidearen eta ibilbidearen zentzuak bilduz.

Santimamiñe koba da, leizea, barne aldia. Eta gainera, garai hartan On Migel Barandiaranen lanak indarra zutenean, euskal izaeraren sustraia zen Urdaibaiko koba, gerora Juan Mari Lekuonaren obra poetikoan ere toki garrantzitsua izango zuena. Artzek poema horri 'Santimamiñe' izena emanaz, badu zentzurik pentsatzeak horrela jokatu zuela poemaren bere

barne txokoen eta bere arimaren alde sakonen berri ematen ari zelako. Gerora zabaldu da poetak testu eder hori jatetxe bateko paperezko ahozapi batean utzi zuela idatzita eta kantaria handik pasa zela eta ezustean aurkitu zuela. Horrela gertatu ez bazen ere merezi zuen, ondorengo famagatik baino ez bada, gertakaria aipatzen den bezala izatea. Baina nik legendatzat dut, baina horretarako jaio ziren legendak historia edertzeko.

Kontua da maitasun galdu baten

historia dagoela poemaren azpian. Oso hasiera gogorra du testuak: «Hegoak ebaki banizkion», harremanean nire borondatea bete izan banu, bere gogoren aurka bazen ere, «nirea izango zen/ ez zuen alde egingo». Gogorkeriaren aipamena? Esan «bego», eta esango duzu «bedi».

Poetak maite du txoria. Baina txoriak ez du maite poeta eta bere askatasunaren hegaldian joan badoa. Eta maskulinitate berrien ildotik, poetak bere egoera onartu eta txoria txori izaten utzi du, «nik txoria nuen maite» lerroarekin borobilduz poema.

Euskal Herria edo amodioa Denetarik entzun dut. Txoria

Euskal Herria dela, eta errepre-sioa (horretan batera egon gaitzke) hego ebakitzaila, ez dakit baina errepre-sioak onartu zukeen beste barik askatasunez joatea inor edo inor. Txoria euskara dela, eta garbi iradokitzen ez den norbaitek hegoak ebaki gabe libre utzi duela.

Gutxitan aditu dut maitasun galera baten ingurukoa dela poema. Artze maitemindurik zegoen eta neskatxa garaiko euskal poeta ezagun baten arreba zen eta da, bizirik baitago, bera ere poeta, eta ez makala.

Aitorpena da Artze poetak idatzi diguna. Garaiko gizonen bidea jarraituz gero, (agian) neskatxa berea izango zen. Baina onartu du egoera eta ezinezko maitasuna da berea. Penaren onarpena.

Poeta sinbolistaren arreba den txoriak badu izena.

Behin baino gehiagotan eta behin baino gehiagori entzun diet Artze oso maite mindurik zegoela eta zenbaiten susmoa da Amaia Lasa litekeela maitale urrundua.



Maitasun eleberria

ARANTXA URREBIZKAIA



Aspaldian (ai, ene, zenbat aspaldiko kontu) maitasun eleberri bat idazteko asmoa etorri zitzaidan gogora. Ondorengo hilabetetan, udaberri eta uda osoan, horixe irakurri nuen, jo-ta-ke, hasi Brontë ahizpekin eta XIX. mendeko erromantikoekin eta Corin Telladorekin buka.

Halako batean pentsatu nuen

ulertu nuela nobela horien gakoak: bi pertsonen artean (normalean emakume eta gizon) erakarpen bat sortzen da, mantso edo kolpetik, baina harremanak ezin du aurrera egin oztopo bat dagoelako. Hor dago gakoak, oztopoan, pentsatu nuen eta oztopo bila hasi nintzen.

Oztopoak era askotakoak izan daitezke: arraza, adin desberdin-

tasuna, klase soziala, erlijioa, odolkidetasuna, familien arteko liskar eta gorrotoak, distantzia fisikoa ... Oztopo hori gainditu ezean, hor bukatzen da istorioa. Ezinezkoa litzatekeelako. Bestela, idazleak nahi duenean, ahanzturan, lehen musuarekin edo aurrerago.

Oztopo klasiko horiek, ordea, ez zitzaizkidan garai haietako aproposak iruditu, gehienak neurri batean gaindituak zeudelako eta mendetasun bat aukeratu nuen oztopo gisa. Balizko bikotearen artean, batek menpekotasun bat zuen, hori zen gainditu beharreko oztopoa. Eleberria plazaratu zenean irakurle batzuk ulertu zuten gai nagusia mendetasuna zela, ez bikotearen maitasuna.

Askotan gertatzen da idazleak, bere ustez, gauza bat egin duela eta irakurleak beste zerbait aurkitzen duela. Idazleak ez daki sekula zer egin duen, dakienean da zer egin nahi izan duen. Irakurleak daki idazleak zer egin duen, irakurle bakoitzak eleberriari bere bizipenak gehitzen dizkionean osatzen baita benetan eleberria. Eta kasu horretan, irakurleak du arrazoi, ez idazleak.

Ez naiz geroztik maitasun eleberririk idaztera ausartu, ez posibleak ez ezinezkoak. Irakurri ere, apenas irakurri dudana, geroztik, maitasun eleberririk.